

MIKROERAKUSKETAK

- Oroipenak -

II. MUNDU GERRAREN AMAIERAREN 75. URTEURRENA (1945)

2020ko maiatza

AGN

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra

1945eko maiatzaren 8an, Alemaniako agintari militar gorenak potentzia aliatuei III. Reicharen errenditzea sinatu zuen Berlinen, eta urte bereko irailean Japoniako kapitulazioa egin zen. Horrekin, gizateriaren historiako gerra-gatazkarik handiena den II. Mundu Gerra (1939-1945) amaitu zen. Bertan dozenaka milioi pertsona hil ziren. Espainiak ez zuen gerran parte hartu eta herrialde neutral edo ez-beligerantearen posizioari eutsi zion arren, zenbait elementuk, hala nola, Nafarroak muga hispanofrantsesean duen kokapen geografikoak, eta dokumentu-funts pertsonal batzuek duten aberastasun eta eduki bereziek, eragiten dute Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak (AGN) gatazkari buruzko dokumentazio desberdina gordetzea. Hori dela eta, II. Mundu Gerra Europan amaitu zela 75 urte betetzen direnean, Nafarroako Artxibo Nagusiak gerra-konflagratio hari buruzko hainbat dokumentu erakutsiko ditu maiatzeko mikroerakusketan.

Gerraren lehen fasean, *Erroma-Berlin-Tokio Ardatzen* eta euren bazkideen indarren nagusitasuna gailendu egin zen. Hasieran, tropa alemaniarrek armada frantziarra garaitu zuten eta Parisen sartu ziren, Frantziako gobernuari, liskarrak eteteko akordio bat eskatzera behartuz. 1940ko ekainaren 22ko Armistizioaren akordio horrek, Frantzia bi eremutan banatuko zela ezarri zuen: bata (Iparraldea eta Atlantikoko kostaldea hartuz) alemaniar militarren okupazio zuzenaren pean, eta bestea (Hegoaldea eta Mediterraneoko kostaldea hartuz) Vichy hirian kokatuta dagoen frantziar gobernu batek administratua. Bi eremuen artean antolatutako muga-lerroa, hain zuzen ere, hispanofrantses mugan hasten zen, Nafarroan, Arnegi parean. Horregatik, Endarlatsa eta Luzaide herrien arteko mugari dagokion Nafarroako zatia alemaniar okupazio eremuaren barruan geratu zenez, soldadu alemaniarrek bisitak egin zituzten Luzaide edo Orreaga bezalako lekuetara.

Era berean, 1941eko udan Alemaniak Sobietar Batasunari egindako erasoaren ondorioz, Franco jeneralaren gobernuak, Espainia gatazkatik kanpo mantendu zuen arren, boluntarioen unitate baten erreklutamendua antolatuz eraman zuen, Alemaniaren banderapean Sobietar Batasunaren aurka borrokatzeko, III. Reicheko erregimen nazionalsozialistarekiko

kidetasun ideologiko antikomunistari jarraikiz. Unitate honek, Alemaniako armadan *Wechmach*-teko 250a Infanteria Dibisioa gisa sartuko zena, Boluntarioen Espainiako Dibisioa izena jaso zuen. *Dibisio Urdina* bezala ere ezaguna izan zen. 40.000 borrokalari inguru izango lirateke Dibisioa osatuko luketenak. Hain zuzen ere, AGNk 1942an Iruñean Nafarroako dibisiodunen lehen erreleboetako bati egindako omenaldiaren zenbait argazki gordetzen ditu, baita 1954an Nafarroako hiriburuan Sobietar Batasunetik Espainiara itzuli ziren preso dibisiodunei egindako harreraren irudiak ere.

1942. urte amaieran, Ardatzeko tropek Stalingrado eta El Alaméin izeneko batailetan aliatuen aurka izan zituzten porrotek eragin zuten gerraren bidea behin betiko aldatzea. Honela, 1945eko hasieran tropa aliatuak jada Alemanian bertan borrokatzen ziren, III. Reich-a gainbeheratzen joaten zen heinean.

Gatazkaren azken ondorio horiei buruz erakusgarri dira, Espainiako diplomazialari eta, garai hartan, Kanpo Arazoetako Ministerioko ekonomia-politikako zuzendari nagusia zen Emilio de Navasqués eta Ruiz de Velascoren funts pertsonalean gordetako dokumentu batzuk. Horrela, Municheko Espainiako kontsulak Bavariako egoeraren berri ematen duen dokumentu interesgarri bat erakusten da. Bertan, tropa aliatuen eta SS nazien arteko azken borrokek kontsuletzea kaltetu zuten, eta, janari faltaren ondorioz, sardina- eta atun-latak eta kafea emateko eskatzen dio ministerioari. Era berean, beste dokumentu bat ere erakusten da, non Espainiak Berlinen duen enbaxadako merkataritza-agregatua den Vicente Trellesekin jakinarazten zuten, borroken hurbiltasunaren aurrean, Berlingo legazioko langile guztiek Suitzako Berna hiriburura alde egin behar izan zutela.

Mikroerakusketa 1945eko maiatzaren 8an, Europan gerra amaitu zen egunean, Donostiako Kontxa hondartzan Heinkel 111 hegazkin bonbardatzaile baten argazkiekin itxi egiten da. Oslotik Norvegiako indar alemaniarren kapitulaziotik ihesi hegan egin ondoren, SSetako ofizial belgikarra den León Degrellek gidatutako aireontzi horrek larrialdiko lurreratzea egin zuen Gipuzkoako hiriburuko hondartzan.